

2024 ko egutegia

# 2023ko ARGAZKI LEHIAKETAKO DEIALDIAREN OINARRIAK

“Gizonak eta berdintasuna”

---



---

## 1. OINARRIA: XEDEA ETA DATA

Oltza Zendea, Belaskoain, Bidaurreta, Etxauri eta Ollarango Udaletako Berdintasun Zerbitzuak antolatutako argazki lehiaketa 2023ko ekaina, uztaila eta abuztuan egingo da. Lehiaketa honen helburu nagusia da emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunaren gainean sentsibilizatzea, aurkeztutako argazkiekin egutegi partehartzaile bat sortuz.

## 2. OINARRIA: PARTE-HARTZAILEAK

Lehiaketan 16 urtetik gorako persona guztiek parte har dezakete, eta gehienez argitaratu gabeko bost argazki aurkeztu dezakete.

## 3. OINARRIA: GAIA

"Gizonak eta berdintasuna" argazki-lehiaketaren helburu nagusia da hausnarketa eta kontzientzia sustatzea, genero berdintasunak eta dibertsitate maskulinoak gure gizartean duen garrantziaz. Argazkiaren bidez, berdintasunaren aldeko borrokan gizonek duten parte hartzea nabarmendu eta baloratu nahi dugu, baita horrek aldaketa sozialean egiten duen ekarpena ere.

Lehiaketaren gai nagusia "Gizonak eta berdintasuna" da. Gizonezkoen ikuspegitik genero berdintasunaren bilaketa islatzen duten egoerak, emozioak, istorioak edo uneak atzeman behar dituzte argazkiek, eta aniztasuna eta gizonek gizarte bidezkoago bat eraikitzen laguntzen duten moduak nabarmendu.

Gizonek hainbat modutan lagundu dezakete genero berdintasuna sustatzen:

- Hezkuntza eta kontzientizazioa: Gizonak genero arazoei buruz eta emakumeek hainbat esparrutan dituzten desberdintasunei buruz hezi daitezke. Kontzientzia eta ezagutza handitzean, estereotipatutako genero rolei aurre egin eta horiek zalantzan jar ditzakete, eta berdintasunezkoagoak diren jarrerak sustatu.
- Etxean laguntzea: funtsezkoa da etxeko ardurak berdintasunez partekatzea. Gizonek aktiboki parte har dezakete etxeko lanetan, seme alaben zainketan eta familiako beste erantzukizun batzuetan. Horri esker, emakumeek aukera eta denbora gehiago dute beren interes eta helburuak lortzeko.

- 
- Lantokiko sustapena: Gizonek beren lan inguruneetako defendatzaile aktiboak izan daitezke, pertsona guztientzako aukera berdintasunaren eta bidezko soldaten alde eginez. Horrek esan nahi du edozein genero bereizkeria onartu eta hari aurre egin behar zaiola, eta lantokian inklusioa eta aniztasuna sustatu behar direla.
  - Portaera ereduak izatea: gizonak berdintasunezko jarreraren adibide izan daitezke harreman pertsonal eta profesioaletan. Horrek esan nahi du besteak errespetuz eta duintasunez tratatu behar direla, emakumeen iritziak entzun eta baloratu behar direla, eta inguruan sexismoaren edo genero bereizkeriaren agerpenei aurre egin behar zaiela.
  - Aliantza eta laguntza: Gizonak aliatu aktiboak izan daitezke genero berdintasunaren aldeko borrokan. Emakumeen ahotsak babestu eta bultzatuz, berdintasunaren alde lan egiten duten ekimenak eta erakundeak babestu, eta gizartearen aldaketa positiboak eragin nahi dituzten mugimendu eta jardueren parte izan.

Argazkiekin batera azalpen laburrak (titulua, argazki oina...) eransteko aukera emango da, argazkien edukia azaldu eta gaiaren inguruko hausnarketak egingo dituzten azalpenak alegia.

#### 4. OINARRIA: AURKEZTEKO MODUA

Parte hartu nahi dutenek helbide elektronikoko honetara bidali beharko dituzte beren irudiak: [berdintasun\\_teknikaria@ayuntamientoolza.com](mailto:berdintasun_teknikaria@ayuntamientoolza.com). Bestela, udal bulegoetan utzi daitezke CD edo drive batean.

Aurkeztu beharreko argazkien ezaugarri teknikoak hauek izanen dira:

- JPEG formatu digitala izan beharko dute.
- Zuri - beltzeko edo koloretako argazkiak aurkez daitezke lehiaketara.
- Gehienez bost argazki pertsona bakoitzeko.
- Aurkezten diren argazkiak jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan beharko dute, eta ezin dira inoiz sarituak izan lehiaketa batean, ezta erakutsi, argitaratu edo beste edozein bidez zabaldu ere.

- 
- Parte hartzaileek beren gain hartuko dute hirugarrenen eskubiderik ez izatearen erantzukizuna, eta irudi eskubideen inguruko erreklamazioarena ere bai.
  - Irudiez gain, testu fitxategi bat ere izan beharko dute, datu hauekin:
  - Datu pertsonalak: Izen-deiturak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa.
  - Lanen izenburua. Argazkiekin batera azalpen laburrak (titulua, argazki oina...) eranstea aukera emango da, argazkien edukia azaldu eta gaiaren inguruko hausnarketak egingo dituzten azalpenak alegia.

Parte hartzaile bakoitzari mezu bat bidaliko zaio, artxiboak jaso direla eta irudiak behar bezala bistaratu direla egiaztatzeko. Irudi guztiak jaso ondoren, epaimahaiari emango zaio, egileen anonimatua gordez.

#### 5. OINARRIA: AURKEZTEKO EPEA

Ekainaren 15etik abuztuaren 31 arte, biak barne.

#### 6. OINARRIA: OINARRIEN ARGITALPENA

Oinarriak udal bakoitzaren iragarki taulan, udal bakoitzaren webgunean eta udalaren egoitza elektronikoa kontsultatzen ahalko dira.

#### 7. OINARRIA: EPAIMAHAI A

Epaimahaia, Berdintasunerako Lan Mahaia izango da. Epaimahaiko lehendakari gisa, Bidaurretako Udaleko alkate andrea izanen da. Idazkaria berriz, berdintasun teknikaria izanen da.

Epaimahaiak edozein arazo konpontzeko baimena du, oinarrietan jasota egon ala ez, eta gatazkak eta ezustekoak konpontzeko eskumena eta aginpidea izango du.

Epaimahaiak botoen gehiengoz hartuko ditu erabakiak eta bere erabakia apelaezina izango da. Halaber, sari guztiak edo batzuk eman gabe uzteko eskubidea ere beretzat gordetzen da, aurkeztutako eskabideek bere irizpideen arabera merezimendu nahikoak ez badituzte.

---

Epaimahaiak sariak eman gabe uzteko aukera izanen du, aurkeztutako argazkiak nahikoak ez badira edo egutegian argitaratzeko gutxieneko kalitatea lortzen ez badute.

#### 8. OINARRIA: BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK

Epaimahaiak irizpide hauek hartuko ditu oinarri puntuaziorako:

- Argazkia Oltza Zendeako, Belaskoingo, Bidaurretako, Etxauriko eta Ollarango herrien bizitzaren isla izatea.
- Obraren edukia eta proposatutako gaiarekin duen lotura.
- Argazkien kalitatea.
- Originaltasuna.

#### 9. OINARRIA: SARIAK

Sari hauek ezarri dira:

- Lehen saria: 200 €
- Bigarren saria: 100 €
- Hirugarren saria: 50 €

#### 10. OINARRIA: EPAIMAHAIAREN ERABAKIA ETA SARI BANAKETA

Epaimahaiaren erabakia 2023ko irailaren 20an jakinaraziko da eta akta egingen da.

Sarituei telefonoz jakinaraziko zaie erabakia.

Oltza Zendea, Belaskoain, Bidaurreta, Etxauri eta Ollarango udalen iragarki tauletan eta web orrietan argitaratuko da.

Sariak emateko ebazpena, Alkatetzaren ebazpenaren bidez egingen da.

#### 11. OINARRIA: AURKEZTUTAKO OBREN JABETZA

Saritutako argazkien egile eskubideek bere horretan jarraituko dute.

---

Berdintasun Zerbitzuak aurkeztutako irudiak gordeko ditu bere argazki funtsean, eta denbora mugarik gabe erabili ahal izango ditu irabazteko asmoko jardueretan, karteletan, katalogoetan, erakusketetan, lehiaketaren zabalkundeetan eta Berdintasun Zerbitzuak egiten dituen lan guztietan, eta ez zaizkie hirugarrenei utziko.

#### 12. OINARRIA: ORGANO ESKUDUNA

Deialdia onetsi eta ebazteko organo eskuduna Berdintasunerako Lan Mahaia izanen da.

#### 13. OINARRIA: OINARRIAK ONARTZEA

Deialdi honetan parte hartzeak berarekin dakar hura arautzen duten oinarriak oso osorik onartzea.

#### 14. OINARRIA: AZKEN ARAUAK

Lehiaketako epaimahaiak edozein ezbehar ebazteko eskumena izanen du. Oinarri hauetan aurreikusten ez den edozein gorabehera lehiaketa garatzeko modurik egokienean ebatziko du antolakuntzak.